

# EUSKADIKO EGOERA SOZIOLABORALA

2022KO I. SEHILEKOA

Seihilekoko txosten hau 2022ko urtarriletik ekainera arteko aldiari dagokio, eta Lan Harremanen Kontseiluaren informazio-planaren parte da. EAEko egoera sozioraberala aztertzea da txostenaren helburua, enpleguaren bilakaera eta negoziazio kolektiboa funtsezko ardatz gisa hartuta.

2022ko iraila

<b>1. TESTUINGURU EKONOMIKOA .....</b>	<b>4</b>
<b>2. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA, GATAZKAK ETA ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK .....</b>	<b>5</b>
<b>NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA.....</b>	<b>5</b>
<b>2.1.- NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN BILAKAERA.....</b>	<b>5</b>
<b>2.2- 2022RAKO HITZARTUTAKO SOLDATA IGOERAK .....</b>	<b>10</b>
<b>2.3- HITZARMEN KOLEKTIBOEN INAPLIKAZIOAK EAE-N.....</b>	<b>13</b>
<b>LAN GATAZKAK ETA ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK .....</b>	<b>16</b>
<b>2.4- GREBAK .....</b>	<b>16</b>
<b>2.5- PRECO-N AURKEZTUTAKO GATAZKAK .....</b>	<b>17</b>
<b>2.6- ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK.....</b>	<b>19</b>
<b>3. ENPLEGUA ETA KONTRATAZIOA .....</b>	<b>21</b>
<b>3.1.- JAKINARAZITAKO KONTRATAZIOAREN BILAKAERA.....</b>	<b>21</b>
<b>3.2- GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOAREN BILAKAERA .....</b>	<b>23</b>
<b>3.3- LANGABEZIA TASA ETA ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA .....</b>	<b>26</b>

## 1. TESTUINGURU EKONOMIKOA

Eustatek uztailaren 19an argitaratutako aurrerapenaren arabera, bigarren hiruhilekoan % 4,3 hazi zen EAEko urte arteko BPGd-a. Inflazioaren gorakada handiek eta ekonomia nagusien hazkunde-tasak murriztu izanak markatu zuten egoera.

Ekainean Gizarte Segurantzako afiliatu kopuruak inoizko zifrarik handiena eskuratu zuen EAEn, 987.179 afiliaturekin, eta erregistratutako langabezia tasa pandemia hasi aurrekoaren antzekoa izan zen. Hala ere, ziurgabetasuna handia da eta zaila da ekonomiak eta enpleguak zer bilakaera izango duten aurreikustea.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak eguneratu egin ditu 2022rako aurreikuspenak: 2022an zehar BPGd-a % 4,5 igoko dela eta urte osoko langabezia-tasa % 8,8koa izango dela aurreikusten da.


Ukrainako gerraren, energiaren eta lehengai batzuen prezioen garestitzearen, interes-tasen igoeraren, banku zentral nagusiek diru-pizgarriak kentzeko aukeraren eta Europako ekonomia nagusiak moteltzearen ondorioz, aurrean dugun etorkizuna ziurgabea da eta, ziur asko, hazkunde-tasa txikiagoak izango ditugu, eta oraindik inflazio-maila altua.

## 2. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA, GATAZKAK ETA ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK

### NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA

#### 2.1.- NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN BILAKAERA

2022ko lehen sei hilekoa amaitzean, langileen % 32,7k eguneratuta zituzten hitzarmenak (guztiz indarrean); % 57,9k, luzapen-egoeran, eta % 9,4k, berriz, iraungita.



Hitzarmenak iraungita dituzten langileen ehunekoa (% 9,4) azken urteetako txikiena bada ere, urtarriletik ekainera aurrerapen gutxi izan dira negoziazio kolektiboan. Hala, sei hilekoaren amaieran, hitzarmenik gabeko pertsonen ehuneko horri beste bat gehitu behar zaio, bere hitzarmenak eguneratzeke dituzten langileena.

<sup>1</sup> Indarrean dauden hitzarmenak: Negoziatzaileek adostutako aplikazio-aldi arruntaren barruan dauden hitzarmenak.


Indarraldia luzatuta duten hitzarmenak: Aplikazio-aldi arrunta amaitu ondoren luzapen-egoeran edo aurreragin-egoeran dauden hitzarmenak.

Iraungitako hitzarmenak: Salatu ondoren eta aurreragin-epaia (legezkoa edo konbentzionala) amaitu ondoren indarraldia galdu duten hitzarmenak, arlo hori barne hartzen duen goragoko beste hitzarmenik ez dagoenean.

Urtearen lehen erdian zehar sektoreko 8 hitzarmen eta enpresako 101 hitzarmen negoziatu ziren EAEn; horiek, guztira, 20.000 pertsona baino zerbait gehiago hartzen dituzte barne. EAEn eragina duten estatuko beste 49 hitzarmen gehitu behar zaizkie horiei (21 sektore-hitzarmen eta 28 enpresa-hitzarmen); 19.000 pertsonari baino gehiagori eragiten diete horiek.

Gainera, hainbat sektoreko mahai irekita daude EAEn. Uztailean, esaterako, Salgaien Errepideko Garraioaren Hitzarmena argitaratu zuten Bizkaian, eta Ostatuena Gipuzkoan.

**2. GRAFIKOA.**  
**EAE-KO LANGILEEN BANAKETA, EHUNEKOTAN, SEKTOREKO/ENPRESAKO**  
**HITZARMENAREN INDARRALDIAREN ARABERA**




Eremu funtzionalen (sektorea/enpresa) araberako azterketak erakusten duenez, hitzarmenak eguneratuta dituzten langileen ehunekoa aurreko ekitaldietan baino handiagoa da bi eremu funtzionaletan, baina 2022an aurrerapen handiagoa eman zen enpresa arloko negoziazioan, sektorekoan baino.

Hala, seihilekoarena amaieran, enpresa-hitzarmenen eraginpeko pertsonen % 41,6k eguneratua zituzten hitzarmenak. Sektore-hitzarmenen eraginpeko langileen artean, aldiz, % 29,9k bakarrik zituzten indarrean haien akordioak (guztiz indarrean).

Negoiazio kolektiboaren bilakaera lurralde eremuen arabera aztertuz gero (EAE/Estatua), ikus daiteke akordio gehiago lortu direla EAEn eragina duen estatu-eremuan, gure erkidegoaren barnean baino.

**3. GRAFIKOA.**  
**EAE-KO LANGILEEN BANAKETA, EHUNEKOTAN, HITZARMENAREN**  
**INDARRALDIAREN ARABERA EAE/ESTATUA (1)**



(1) EAE: EAEn negoziatutako hitzarmenak.

Estatua: EAEn eragina duen estatu-eremuko hitzarmenak.

Seihilekoaren amaieran, estatu-mailako hitzarmenen eraginpeko langileen % 51,1ek indarrean zituzten haien hitzarmenak. Aldiz, gure erkidegoan negoziatutako hitzarmenak kontuan hartuz gero, langileen % 25,5ek baino ez zituzten eguneratuta haien baldintzak. Bestalde, 2022ko urtarrila-ekaina aldian EAEn negoziatutako akordioen eraginpeko pertsonen % 4,7k berritu zituzten hitzarmenak. Aldiz, ehuneko hori % 11,4koa izan zen EAEn eragina duen estatu-eremuko hitzarmenen kasuan.

Lurraldeen araberrako azterketak erakusten duenez, ekitaldiaren hasieratik, EAEn eragina duen Estatuko hitzarmenetan eta Araban eman dira aurrerapen handienak.

2022ko lehen sei hilabete hauetan zehar, EAEn eragina duen estatu-eremuko 21 sektore-hitzarmen sinatu dituzte, eta horiek ia 15.000 langileri eragiten diete. Horien artean, hauek nabarmentzen dira, duen garrantziarengatik: Saltoki handien hitzarmena (ia 7.000 langile), Irudi pertsonalaren, ile-

apaindegien eta apaindegien hitzarmena eta Higiezin kudeaketa eta bitartekotzako hitzarmena (bi horietako bakoitzak 2.400 langileri baino gehiagori eragiten die). Ondorioz, hitzarmenak eguneratuta dituzten langileen ehunekoa % 40,4tik % 51,1era igo da urte hasieratik.

Arabako lurralde historikoari dagokionez, 2 sektore-hitzarmen sinatu dituzte, Eraikinen eta lokalen garbiketarena (2.800 pertsonatik gora) eta Zementuaren deribatua (100 langile baino gutxiago). Horiei 17 enpresa-hitzarmen batu behar zaizkie; hala, hitzarmenak eguneratuta dituzten langileen ehunekoa % 14,8koa zen urte hasieran, eta % 22,7ra igo da ekainaren amaieran.

Era berean, txosten hau idazten ari zenean, 12.000 langileri baino gehiagori eragingo liokeen aurreakordioa sinatu da metalaren sektorean.

EAEko gainerako eremuetan aurrerapenak txikiagoak izan dira.

Gipuzkoan 36 enpresa-hitzarmen eta sektore-hitzarmen bakar sinatu dituzte, Gipuzkoako Informazioaren eta dokumentuen kudeaketaren hitzarmena. Lurralde honetan berria da negoziazio arlo hori. Guztira, ekainaren amaieran hitzarmenak eguneratuta zituzten langileen ehunekoa % 34,4koa izan zen (urtearen hasieran % 30,6).


Bizkaiaren kasuan 4 sektore-hitzarmen sinatu dituzte, eta horiek 2.100 pertsona baino zerbait gehiago hartzen dituzte barne. Gainera, 46 enpresa-hitzarmen sinatu dituzte, ia 5.515 langile babesten dituztenak. Hala, hitzarmenak eguneratuta dituzten langileen ehunekoa % 17,9tik % 21,5era igo da seihileko honetan. Sinatutako sektore-hitzarmenen artean, honakoak nabarmendu behar dira: Fruta eta barazkien handizkariak eta Arrain-kontserba eta -gazituen handizkariak.

Azkenik, lurralde arteko eremuari dagokionez, hitzarmenak eguneratuta zituzten langileen ehunekoa % 13,4koa zen urte hasieran, eta % 19,6koa ekainaren amaieran.



4. GRAFIKOA

NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN BILAKAERA 2022AN, EAE-KO LURRALDE EREMUEAN ARABERA



2022/01/01eko datuak

2022/06/30eko datuak

- Hitzarmenak iraungita dituzten eta goragoko mailako beste hitzarmen baten babesik ez duten langileen ehunekoa
- 2022an hitzarmenak luzatuta eta berritzeko dituzten langileen ehunekoa
- Hitzarmenak indarrean dituzten langileen ehunekoa


## 2.2- 2022RAKO HITZARTUTAKO SOLDATA IGOERAK

### 2.2.1.- Indarrean dauden hitzarmenetan adostutako soldata-igoerak

Lehen sei hilekoa amaitzean, gure erkidegoan indarrean dauden hitzarmen kolektiboetan 2022rako hitzartutako batez besteko soldata-igoera<sup>2</sup> % 3,78koa zen.

Kontuan hartu behar da, dena dela, igoera honek 197.000 langileri baino apur bat gehiagori eragiten diola, hau da, langileen % 32,7ri. Izan ere, gainerako % 67,3ak, 405.000 pertsonak baino gehiagok, luzapen egoeran edo iraungita dituzte hitzarmenak, aurreko atalean aipatu dugun moduan.

Azpimarratzekoa da, halaber, adostutako soldata-igoeren artean ere alde handiak daudela negoziazio-eremuen arabera.



<sup>2</sup> Hitzartutako batez besteko igoera kalkulatzeko, hitzarmen bakoitzaren eraginpeko langile kopuruarekin haztatzen da hitzarmenean adostutako batez besteko igoera.

Lurralde eremuen (EAE/Estatua) araberako azterketak erakusten duenez, EAEn negoziatutako akordioen batez besteko igoera (% 4,82) nabarmen handiagoa izan da EAEn eragina duten estatu-eremuko hitzarmenetakoa baino (% 2,38). Izan ere, alde handia dago EAEn negoziatutako indarrean dauden sektore-hitzarmenetan adostutako batez besteko igoeraren (% 5,13) eta EAEn eragina duten estatu-eremuko sektore-hitzarmenetan adostutakoaren (% 1,92) artean. Eredu batean eta bestean negoziatutako enpresa-hitzarmenetako igoeren arteko aldea askoz ere txikiagoa da.

EAEn negoziatutako sektore-hitzarmenen batez besteko igoeran (% 5,13) eragin handia izan dute hitzarmen hauetan 2022rako adostutako % 6,5eko igoerek: Bizkaiko Eraikuntzako hitzarmena (12.464 langile) eta Gipuzkoako Industria Siderometalurgikokoa (30.243 langile). Izan ere, sektore-hitzarmenak indarrean dituzten langile guztien % 60 bi akordio horien eraginpekoak dira (21 hitzarmen eta 72.116 pertsona).

Eredu funtzionalen (enpresa/sektorea) araberako igoeren azterketak erakusten duenez, enpresa-hitzarmenetan adostutako igoerak (% 4,18) handiagoak dira sektore-hitzarmenetakoak (% 3,63) baino, EAEko kasuan izan ezik. Izan ere, aipatu dugun moduan, eremu horretan sektore-hitzarmenetan adostutako batez besteko igoera ere handiagoa da enpresa-hitzarmenetan adostutakoa baino.

**1. KOADROA.**  
**EAE\*. 2022AN INDARREAN DAUDEN HITZARMENETAKO SOLDATA**  
**IGOERAREN % (2022/06/30EKO DATUAK).**

	EAEn negoziatutakoak	EAEn eragina duen estatu-mailakoak	GUZTIRA
<b>Enpresa</b>	% 4,16	% 4,22	% 4,18
<b>Sektorea</b>	% 5,13	% 1,92	% 3,63
<b>Guztira</b>	% 4,82	% 2,38	% 3,78


\*EAEn negoziatutako hitzarmenen eta EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenen soldata-igoera. 2022/06/30eko datuak

### 2.2.2.- 2022an erregistratutako hitzarmenetan adostutako soldata-igoerak

2022an erregistratutako hitzarmenei dagokienez, EAEn aplika daitezkeen hitzarmenetako batez besteko igoera % 3,32koa izan da.

2022an erregistratutako akordio hauek langileen % 6,6ri baino ez diete eragiten (39.716 pertsona), baina hitzarmen hauetan

adostutako igoerek aukera ematen digute sinatzen diren hitzarmen berrien joera zein den behatzeko.



Kasu honetan, 2022an erregistratutako eta EAEn negoziatutako hitzarmenetan adostutako igoerak (% 3,73) oraindik ere handiagoak dira EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenetakoak baino (% 2,90), baina aldeak txikiagoak dira.

Halaber, EAEn negoziatutako sektore-hitzarmenetan (% 2,75) eta EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenetan (% 2,88) adostutako igoerak nahiko antzekoak dira.

**2. KOADROA.**

**EAE\*. 2022AN ERREGISTRATUTAKO HITZARMENETAKO SOLDATA**  
**IGOERAREN % (2022/06/30EKO DATUAK)**

	EAEn negoziatutakoak	EAEn eragina duen estatu-mailakoak	GUZTIRA
<b>Enpresa</b>	% 4,33	% 2,99	% 4,04
<b>Sektorea</b>	% 2,75	% 2,88	% 2,84
<b>Guztira</b>	% 3,73	% 2,90	% 3,32

\*EAEn negoziatutako hitzarmenen eta EAEn eragina duen estatu-mailako hitzarmenen soldata-igoera. 2022/06/30eko datuak

Azkenik, eremu funtzionalen (enpresa/sektorea) araberrako azterketak erakusten duenez, enpresa-hitzarmenetan adostutako igoerek (% 4,04) handiagoak izaten jarraitzen dute sektore-hitzarmenetakoek baino (% 2,84).

### 2.3- HITZARMEN KOLEKTIBOEN INAPLIKAZIOAK<sup>3</sup> EAE-N

*Hitzarmen Kolektiboen Erregistroan*<sup>4</sup> eskuragarri dagoen informazioaren arabera, 2022ko lehen seihilekoan zehar, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta, EAEn apur bat hazi ziren, bai aurkeztutako inaplikazio-kopurua, bai eraginpeko langileen kopurua.

2022ko urtarriletik ekainera % 70 hazi zen inaplikazioen kopurua eta 17ra iritsi zen; 2021eko lehen seihilekoan, berriz, 10 inaplikazio izan ziren. Bestetik, 2022an 145 pertsonari eragin zieten inaplikazioek, 2021ean baino % 85,9 gehiagori, orduan 78 pertsona izan baitziren.

Dena den, eraginpeko pertsonen kopurua oso txikia da oraindik ere, negozioazio kolektiboen eraginpeko langile kopurua kontuan hartuta.

EAEko Lan Agintaritzaren aurrean aurkeztutako inaplikazio guztiak alderdi guztien adostasunekoak izan ziren. 17 inaplikaziotik 15etan kontsulta-aldian lortu zen akordioa;

<sup>3</sup> 2012ko lan-erreformak aukera ematen du, arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolakuntzakoak edo ekoizpenekoak tartean direnean, aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan aurreikusitako lan-baldintza jakin batzuk ez aplikatzeko enpresan, enpresaren eta langileen ordezkarien arteko akordioaren bidez.. Adostasunik lortzen ez bada, desadostasuna hitzarmenaren batzordearen iritzipean jar daiteke. Batzorde horrek esku hartzen ez badu edo akordiorik lortzen ez bada, alderdiek Precora jo beharko dute. Precok ez badu desadostasuna konpontzen, alderdietako edozeinek ORPRICCera jo ahal izango du (haren egoitza LHKn dago).

<sup>4</sup> <http://explotacion.mtin.gob.es/regcon/pv/index.htm>

bitan, berriz, hitzarmenaren batzorde paritarioan lortu zen akordioa.

Halaber, aipatu beharrekoa da, aurreko bost urteetan bezala, 2022an ere ez zela inaplikazio-eskaerarik aurkeztu ORPRICCEn, Estatutuaren araberako Hitzarmen Kolektiboak ez Aplikatzeko Prozedurak Ebazteko Organoan.

Hitzarmenak ez aplikatzeko gaiei dagokienez, 17 inaplikaziotik 13tan soldataren zenbatekoa izan zen arrazoia, hutsean, eta horiek 99 pertsonari eragin zieten.

Bi inaplikaziotan ordutegia eta laneko denboraren banaketa izan zen gaia eta 27 izan ziren eraginpeko pertsonak. Beste bi kasutan, berriz, borondatezko hobekuntzak izan ziren beste bi kasutan (horietako batean, soldataren zenbatekoarekin batera), eta 19 langileri eragin zieten.

Inaplikazio gehien erregistratu zituzten EAEko sektoreak honako hauek izan ziren: industria, 11 inaplikazio eta eraginpeko 83 pertsonarekin, eta zerbitzuak, 5 inaplikazio eta eraginpeko 54 langilerekin. Eraikuntzan inaplikazio bakarra aurkeztu zen, eta 8 pertsonari eragin zien.

Aipatu beharrekoa da Gipuzkoako industria siderometalurgikoko hitzarmenaren eraginpeko Gipuzkoako enpresek aurkeztu dituztela aurrez aipatu ditugun bigarren sektoreko inaplikazio guztiak. Inaplikazioaren gaia soldataren zenbatekoa izan da, eta 83 pertsonari eragin diete horiek, lehen sei hileko honetako inaplikazioen eraginpeko pertsona guztien % 57,2ri.


Estatuan ia ez zen aldatu inaplikazioen kopurua (2021ean 307 eta 2022an 308). Dena den, % 27,8 hazi zen eraginpeko pertsonen kopurua (2021ean 9.341 eta 2022an 11.941).

Estatuan aurkeztutako inaplikazioen % 89,9tan akordioa lortu zen kontsulta-aldian; inaplikazioen % 5,2tan hitzarmenaren batzorde paritarioan eskuratu zen akordioa; inaplikazioen % 4,2tan bitartekotzaren edo laudoaren bidez eskuratu zen akordioa borondatezko prozeduran zehar; azkenik, bi eskaera baino ez dira hiru alderdiko organo batean ebatzi zituzten inaplikazio-eskaerak (guztizkoaren % 0,7).

Aipatzekoa da 2022ko lehen sei hilabete hauetan, aurreko urtearekin alderatuta, Estatuan asko murriztu dela hiru alderdiko organo batek esku hartu duen inaplikazioen ehunekoa (2021ean % 3,9), eta 2020ko mailaren parean kokatu dela (% 0,6).

Inaplikazioen gai nagusia soldataren zenbatekoa (hutsean edo beste kontzeptu batzuekin batera) izan zen Estatuan aurkeztutako inaplikazioen % 69,8tan, eta horiek langileen % 54,2ri eragin zieten. Inaplikazioen % 14,3tan, bestalde, lanaldiarekin, ordutegiarekin eta laneko denboraren banaketarekin lotutako gaiak agertu ziren (eraginpeko langileen % 13,8).

7. GRAFIKOA.  
INAPLIKAZIOEN ERAGINPEKO LANGILEAK




## LAN GATAZKAK ETA ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK

### 2.4- GREBAK

Lehenik eta behin, aipatu beharrekoa da txosten hau egiteko unean eskura zeuden datu bakarrik 2022ko urtarriletik apirilera artean gure erkidegoan egindako grebei buruzkoak zirela. Hortaz, lehenengo lau hilabete horietako datuak hartu ditugu kontuan aurreko ekitaldiekiko alderaketak egiteko.

Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak argitaratutako datuen arabera, 2022ko lehen lau hilabeteetan zehar 113 greba zenbatu ziren EAEn. Horiek 11.020 langileri eragin zieten eta 38.823 lanegun galdu ziren.

Aurreko urteko aldi berarekin alderatuta, greba kopuruak % 32,9 egin du gora eta eraginpeko pertsonen kopuruak % 59,2. Lan egin gabeko egunen zenbatekoa, berriz, % 66,9 murriztu da.



2022. urteko gatazka gehienak enpresakoak izan ziren. Izan ere, sektoreko gatazken ondorioz lan egin gabeko lanaldiak 1.030 baino ez ziren izan.



Negoiazio kolektiboak jarraitzen du izaten greben arrazoi nagusia; hain zuzen ere, gatazka horiei dagozkie greben % 84,1, eraginpeko pertsonen % 90,9 eta lan egin gabeko egunen % 78,5.

Jarduera-sektoreen arabera, zerbitzuen sektoreari dagozkio greben % 71,7, eraginpeko langileen % 72,3 eta lan egin gabeko egunen % 51.

Industria-sektoreko gatazkei dagozkie greben % 27,4, eraginpeko pertsonen % 26,7 eta lan egin gabeko egunen % 48,9. Eraikuntza-sektoreko grebak, berriz, guztizkoaren % 0,9 izan dira, eraginpeko langileen % 1 bildu dute eta lan egin gabeko egunen % 0,1. Ez da grebarik erregistratu nekazaritza-sektorean.

## 2.5- PRECO-N AURKEZTUTAKO GATAZKAK


Lan Harremanen Kontseiluak Preco Akordioa (Laneko Gatazkak Ebazteko Borondatezko Prozedurei buruzko Lanbide Arteko Akordioa) kudeatzen du bere hiru lurralde-zerbitzuen bidez. Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkariak duten konfederazio sindikal eta enpresa-konfederazio guztiek (ELA, LAB, CCOO, UGT eta Confebask) sinatu zuten akordio hori 2000ko otsailaren 16an (2000ko apirilaren 4ko EHAA, 66. zk.).

2022ko lehen seihilekoan zehar 290 eskaera aurkeztu zituzten Precon, aurreko urteko aldi berean baino 91 gutxiago, eta horiek 64.087 pertsonari eragin zieten (2021ean 192.388). Hortaz, aurreko urtean baino % 23,9 eskaera gutxiago aurkeztu ziren, eta eraginpeko langileen kopurua % 66,7 gutxitu zen.

Aurreko txostenetan adierazi bezala, COVID-19 koronabirusaren pandemiarekin lotutako gatazken ondorioz, 2021ean gora egin zuen aurkeztutako eskaera kopuruak. Kasu askotan, honakoekin zeuden lotuta: ezarritako babes- eta segurtasun-neurriak, ordaindutako baimena berreskuratzea, ABEEE-en baldintzak eta garapena, eta alarma-egoeraren indarraldian zehar onartutako araudiaren aplikazioarekin lotutako gatazkak.

9. GRAFIKOA.  
PRECON AURKEZTUTAKO GATAZKA KOPURUA

Euskal Autonomia Erkidegoa. Lehen seihilekoa



Dena den, 2021eko irailtik aurrera nabarmen egin zuen behera aurkeztutako eskaera-kopuruak eta eraginpeko langileen kopuruak. 2021eko lehen seihilekoan sektore-eremuko zazpi gatazka izan ziren, eta 2022ko lehen seihilekoan, berriz, sektore-eremuko gatazka kolektibo bakarra aurkeztu da. Horrek eragin du eraginpeko langile-kopuruaren jaitsiera.

Saioak egiteko erabilitako modalitateari dagokionez, aipatu beharrekoa da aurrez aurrezko bileren formatuari heldu diotela berriro ere, COVID-19aren pandemiaren egoerak ahalbidetu duenean. Dena den, bilerak formatu telematikoan edo mistoan (aurrez aurre eta telematikoki) egiteko aukera ere gaitu dute, arrazoi anitzak direla eta alderdietako batek aukera hori nahiago duela adierazi duenean, betiere beste alderdiaren baimenarekin.

2022ko urtarrila-ekaina aldian amaitutako gatazkei dagokienez (guztira 297), % 26,9koa izan da adostasun-tasa (aurreko urteko lehen seihilekoan, % 20,2koa).


Beste urte batez, baieztatu egin da alderdiek gero eta gutxiago erabiltzen dituztela Lan Harremanen Kontseiluko elkargoko profesionalen esku-hartzearen bidez egiten diren adiskidetze-, bitartekotza- edo arbitraje-prozedurak, seihileko honetan guztira amaitutakoen % 3,8 izanik (% 4,3 2021ean).

Hala, 2022ko urtarrila-ekaina aldian 11 gatazka kolektibo amaitu dituzte adiskidetze-prozeduraren bidez; horietako 7 lotuta zeuden afiliazio sindikala egiaztatze-prozedura bereziarekin. Bestetik, gatazka bakarra amaitu da bitartekotza-prozeduraren bidez, eta da ez da arbitraje-laudorik eman.

## 2.6- ENPLEGU-ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK

2022ko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era 441 enplegu-erregulazioko espediente aurkeztu ziren EAEn. Horiek 15.592 langileri eragin zieten. Hala, espediente kopurua % 64,4 murriztu da (2021eko lehen seihilekoan 1.240 izan ziren), baina eraginpeko langileen kopurua % 11,8 igo da (2021ean 13.950).

**10. GRAFIKOA.**  
**EAE-N AURKEZTUTAKO ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEEN ERAGINPEKO**  
**PERTSONAK (ABEEE-AK ETA EEE-AK). ERAGINPEKOEN GUZTIZKOA,**  
**URTEAREN ARABERA\***



\*2022. urtea: Urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitartean aurkeztutako espedienteen eraginpeko pertsonak. Gainerako ekitaldiak, urteko guztizkoa.


Iturria: Lan eta Enplegu Saila. Eusko Jaurlaritza.

Aurkeztutako espediente gehienen arrazoia ekonomikoa izan zen (264 espediente) eta horiek 13.739 pertsonari eragin zieten. Ezinbesteko arrazoiengatiko erregulazio-espedienteak 161 izan ziren eta 1.439 langileri eragin zieten. Bestetik, 16 espediente aurkeztu ziren arrazoi teknologikoekin lotuta (arrazoi teknikoak, antolakuntzakoak edo ekoizpenekoak) eta horiek 414 langileri eragin zieten.

Aurreko urtearekin alderatuta, asko murriztu ziren ezinbesteko arrazoiengatiko espedienteak (-% 80,1), horiek asko erabili baitziren pandemian zehar. Eraginpeko pertsonen kopurua, berriz, % 54,8 murriztu zen 2021ean.

Langileen % 98,6ri aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteek (lan-harremana eteteko edo murrizteko ABEEEak) eragin zieten. Aitzitik, 211 pertsonari, % 1,4ri, bakarrik aplikatu zizkieten haien lan-harremana azkentzeko espedienteak.

11. GRAFIKOA.

**EAE-N URTARRILAREN ETA EKAINAREN ARTEAN AURKEZTUTAKO ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEEN ERAGINPEKO PERTSONAK**

Iturria: Lan eta Enplegu Saila. Eusko Jaurlaritza.

Sektoreen arabera, nabarmentzekoa da industria-sektoreko enpresek aurkeztutako espedienteen gorakada. Sektore horri dagozkio espedienteen % 27,4 eta eraginpeko langileen % 66,4.

Zerbitzuen sektorean espediente gehiago aurkeztu ziren (guztizkoaren % 61,7), baina eraginpeko pertsonen % 30,6 bakarrik bildu zuen.

Eraikuntza eta lehen sektorea kokatu ziren azken postuan, espedienteen % 5arekin. Eraikuntzari dagozkio eraginpeko pertsonen % 2,7, nekazaritzari % 5,9 eta arrantzari % 0,3.

### 3. ENPLEGUA ETA KONTRATAZIOA

Kapitulu honetan, lehenik eta behin, jakinarazitako kontratazioaren bilakaera aztertuko dugu, hau da, 2022ko lehen sei hilekoan zehar sinatutako kontratu kopurua (iraunkorrek zein aldi baterakoak). Ondoren, 2022ko ekainean Gizarte Segurantzako afiliazioak zer egoera zuen aztertuko dugu.

2022ko lehen sei hilekoko enplegu arloko datuekin hasi aurretik, alderaketa gehienak 2019ko urteko aldi berarekin egingo ditugula argitu behar dugu. Egungo egoeraren eta pandemiaren aurreko egoeraren arteko aldeak ikustea da helburua. Egungo datuak, zuzenean, 2020ko edo 2021eko datuekin alderatzeak ondorio okerrak ateratzera eraman gaitzake. Izan ere, urte horietako enplegu eta kontratazio arloko datuak oso baxuak izan ziren COVID-19 koronabirusa agertu ondoren bizitako ezohiko egoeraren ondorioz.

#### 3.1.- JAKINARAZITAKO KONTRATAZIOAREN BILAKAERA

2022ko lehen sei hilekoan zehar 411.957 kontratu sinatu ziren EAEn. Horietatik % 22,3 (92.078) mugagabeak izan ziren, eta gainerako % 77,7ak (319.879) aldi baterakoak.

**3. KOADROA.**  
**EAE-N LEHEN SEIHILEKOAN ZEHAR JAKINARAZITAKO KONTRATU KOPURUA,**  
**KONTRATU MOTAREN ARABERA**

	2019ko I. sei hilekoa	2020ko I. sei hilekoa	2021eko I. sei hilekoa	2022ko I. sei hilekoa	Aldakuntza 2022ko I. sei hilekoan, 2019ko I. sei hilekoarekiko
Mugagabeak	42.030	29.029	37.032	92.078	% 119,1
Aldi baterakoak	445.535	290.601	349.862	319.879	-% 28,2
<b>GUZTIRA</b>	<b>487.565</b>	<b>319.630</b>	<b>386.894</b>	<b>411.957</b>	<b>-% 15,5</b>

Iturria: SEPE.

Datu horiek 2019ko aldi bereko datuekin alderatuz gero<sup>5</sup>, ikusiko dugu kontratuen guztizko kopurua jaitsi egin dela, baina barne-banaketa nabarmen aldatu dela: sinatutako kontratu mugagabeen kopurua % 119,1 hazi da, eta aldi baterako kontratuen kopurua, berriz, % 28,2 murriztu da.

Sexuaren arabera, 2019ko aldi berarekin alderatuta, sinatutako kontratu kopurua antzeko proportzioan jaitsi zen emakumeen (-% 15) zein gizonen (-% 16) kasuan. Dena den,

<sup>5</sup> Aipatu dugun moduan, ez ditugu 2022ko datuak 2020ko eta 2019ko ekitaldietako datuekin alderatuko, ekitaldi horietan jakinarazitako kontratazioa nabarmen jaitsi baitzen, pandemia zela eta ezarritako itxialdien eta jardueraren mugen ondorioz.

lehenengo seihilekoan sinatutako kontratu mugagabeen kopurua apur bat gehiago hazi zen emakumeen kasuan, gizonen kasuan baino (+% 121,4 eta % 117, hurrenez hurren).

Kontratu mugagabeen gorakada horretan eragina izan du 2022an 32/2021 Errege Lege Dekretua indarrean sartu izanak (abenduarien 28koa, lan-erreformarako, enpleguaren egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko premiazko neurriei buruzkoa). Dekretu horrek arau berriak ezartzen ditu aldi baterako kontrataziorako, eta horien eskuragarritasuna mugatzen du.

Hain zuzen ere, 2022aren aurreko urteetan, EAEn sinatzen ziren kontratuen % 90 aldi baterakoak ziren (2019an % 91,4), eta ehuneko hori % 77,6ra jaitsi zen 2022ko lehen seihilekoan.

Ondorioz, nabarmen hazi da kontratu mugagabeen pisua. 2019ko lehen seihilekoan, sinatutako 100 kontratutik 8,6 ziren mugagabeak; 2022ko aldi berean, aldiz, 100 kontratutik 22,4 ziren mugagabeak.

**4. KOADROA.**

**EAE-N LEHEN SEIHILEKOAN ZEHAR JAKINARAZITAKO KONTRATU KOPURUA,  
KONTRATU MOTAREN ARABERA**


	2019ko I. seihilekoa	2019ko I. seihilekoko banaketa	2022ko I. seihilekoa	2022ko I. seihilekoko banaketa
Mugagabeak	42.030	% 8,6	92.078	% 22,4
Aldi baterakoak	445.535	% 91,4	319.879	% 77,6
<b>GUZTIRA</b>	<b>487.565</b>	<b>% 100,0</b>	<b>411.957</b>	<b>% 100,0</b>

Iturria: SEPE.

Kontratu mugagabeen gorakada honek eta aldi baterako kontratazioaren jaitsierak lan-merkatuaren osaeran izan duen eragina hobeto ulertzeko modu bat da Gizarte Segurantzako afiliazioaren bilakaera kontratu-motaren arabera ere aztertzea, eta horri helduko diogu hurrengo atalean.

### 3.2- GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOAREN BILAKAERA

2022ko lehen sei hilekoaren amaieran, EA Eko Gizarte Segurantzako hileko batez besteko afiliazioa 987.179 pertsonakoa zen<sup>6</sup>. Hala, 2008ko uztailean eskuratutako gehieneko zifra (982.935 pertsona) gainditu zen.



Pandemian zehar ezohiko neurriak jarri zituzten martxan enplegua eta ekoizpen-ehuna babesteko, hainbat mekanismoren bidez, hala nola enplegu-erregulazioko espedienteen bidez. Horrek, zalantzarik gabe, enplegua berreskuratzen lagundu du, behin jarduera ekonomikoa normalizatu denean.

2019arekin alderatuta, urte horretako ekainean baino 13.762 pertsona gehiago (+% 1,4) zeuden afiliatuta 2022ko ekainean. Azterketa sexuen arabera eginez gero, ikus daiteke emakumeen batez besteko afiliazioa 2019koa baino nabarmen altuagoa izan zela (+% 2,7); gizonen kasuan, berriz, % 0,3 handiagoa baino ez zen izan.

Erregimen Orokorreko afiliazioa, bestalde, +% 2,3 hazi zen (17.362 pertsona). Gainerako erregimenetan behera egin zuen

<sup>6</sup> Gizarte Segurantzak 2022/07/15ean argitaratutako datuak.

afiliazioak, eta Langile Autonomoen Erregimen Berezia nabarmendu zen, 1.183 pertsona gutxiagorekin (-% 1,1).

**7. KOADROA.**

**EAE-N GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO PERTSONAK, ERREGIMENAREN ARABERA (HILEKO BATEZBESTEKOA)**

	LANGILEAK. AUTONOMOAK	ITSASOKO LANGILEEN ERREGIMEN BEREZIA (Besteren kontura)	ITSASOKO LANGILEEN ERREGIMEN BEREZIA (Norberaren kontura)	LANGILE AUTONOMOEN ERREGIMEN BEREZIA (NEKAZARITZAKO LANGILEEN SISTEMA BEREZIA)	ERREGIMEN OROKORRA (ETXEKO LANGILEEN SISTEMA BEREZIA)	ERREGIMEN OROKORRA (NEKAZARITZAKO LANGILEEN SISTEMA BEREZIA)	ERREGIMEN OROKORRA	SISTEMA OSOA
2019-ekaina	167.714	3.995	358	4.251	28.973	3.291	764.835	973.417
2020-ekaina	165.026	3.889	333	4.156	27.563	2.806	739.121	942.894
2021-ekaina	165.893	3.868	318	3.990	28.331	3.089	760.884	966.373
2022-ekaina	165.901	3.803	308	3.839	28.240	2.891	782.197	987.179
<i>Aldea</i> <i>2022-2019</i>	-1.813	-192	-50	-412	-733	-400	17.362	13.762
<i>Aldakuntza</i> <i>%</i> <i>2022/ 2019</i>	-% 1,1	-% 4,8	-% 14,0	-% 9,7	-% 2,5	-% 12,2	% 2,3	% 1,4

Iturria: Gizarte Segurantza.

Enplegu publikoa areagotu izanak azaltzen du, neurri handi batean, 2019arekin alderatuta afiliazioak gora egin izana. Hala, 2019ko ekainaren eta 2022ko ekainaren artean 13.762 pertsonako hazkundera erregistratu zen. Horietarik 11.425 pertsona langile publikoak izan ziren. Sektore pribatuko afiliatu kopuruari dagokionez, berriz, 2.337 pertsona bakarrik areagotu ziren.

**8. KOADROA.**

**EAE-N GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO PERTSONAK, KONTRATU MOTAREN ARABERA (HILEKO BATEZBESTEKOA)**

	Mugagabea Lanaldi Osoa	Mugagabea Lanaldi Partziala	Finko Etendunak	Aldi Baterakoa Lanaldi Osoa	Aldi Baterakoa Lanaldi Partziala	Beste Batzuk (*)	GUZTIRA
2019-ekaina	380.966	72.478	10.585	144.719	83.296	72.791	764.835
2020-ekaina	386.656	73.409	10.363	124.198	69.753	74.740	739.121
2021-ekaina	392.199	75.614	10.392	134.126	72.413	76.140	760.884
2022-ekaina	419.576	91.119	17.152	114.965	56.448	82.937	782.197
<i>Aldea</i> <i>2022-2019</i>	38.610	18.641	6.567	-29.754	-26.848	10.146	17.362
<i>Aldakuntza</i> <i>%</i> <i>2022/ 2019</i>	% 10,1	% 25,7	% 62,0	-% 20,6	-% 32,2	% 13,9	% 2,3

(\*) Barne hartzen ditu kontraturik ez duten afiliatuak (funtzionarioak), zainzaile ez profesionalak, prestakuntza-programak eta enpresetako praktika ez laboralak (1493/2011 eta 1543/2011 Errege Dekretuak), eta akats edo hutsegiteren batengatik fitxategian zer kontratu mota den adierazten ez diren kasuak. Erregimen Orokorreko afiliatuak bakarrik hartzen ditu barne, eta kanpoan uzten ditu nekazaritzako eta etxeke langileen sistema bereziak.

Iturria: Gizarte Segurantza.



Gizarte Segurantzak argitaratutako datuen arabera, 2019ko ekainaren eta 2022ko ekainaren artean EAEko administrazioetako sektore publikoko langileak 138.230 izatetik 149.654 izatera pasatu ziren.


Aurreko ataletan adierazitakoarekin bat, Erregimen Orokorreko afiliazioa kontratu motaren arabera aztertuta eta 2019ko ekainarekin alderatua, murriztu egin dira aldi baterako kontratu batekin Gizarte Segurantzaz afiliatutako pertsonak, eta areagotu egin dira gainerakoak, hau da, kontratu mugagabea duten pertsonak, finko etendunak eta "Beste batzuk" atalaren barruan biltzen direnak<sup>7</sup>.

Baliteke afiliatuak batetik bestera pasatu izana lanaldi partzialeko aldi baterako kontratuetatik (-26.848) lanaldi partzialeko kontratu mugagabeetara eta kontratu finko etendunetara (+25.208). Dena den, aipatu beharrekoa da asko hazi dela lanaldi osoko kontratu mugagabeak dituzten pertsonen kopurua (+38.610) eta "Beste batzuk" atalean bildutako pertsonen kopurua (+10.146). Horiek alde handiz gaituzten dute lanaldi osoko aldi baterako kontratuak zituzten afiliatuen kopuruaren jaitsiera (-29.754).

---

<sup>7</sup> Barne hartzen ditu kontraturik ez duten afiliatuak (funtzionarioak), zaintzaile ez profesionalak, prestakuntza-programak eta enpresetako praktika ez laboralak (1493/2011 eta 1543/2011 Errege Dekretuak), eta akats edo hutsegiteren batengatik fitxategian zer kontratu mota den adierazten ez diren kasuak. Erregimen Orokorreko afiliatuak bakarrik hartzen ditu barne, eta kanpoan uzten ditu nekazaritzako eta etxeko langileen sistema bereziak.

**13. GRAFIKOA.**  
**EAE-N ERREGIMEN OROKORREAN AFILIATUTAKO PERTSONA KOPURUAREN**  
**ALDAKUNTZAK 2019KO EKAINAREN ETA 2022KO EKAINAREN ARTEAN.**  
**GUZTIRA ETA KONTRATU MOTAREN ARABERA**




(\*) Barne hartzen ditu kontraturik ez duten afiliatuak (funtzionarioak), zainzaile ez profesionalak, prestakuntza-programak eta enpresetako praktika ez laboralak (1493/2011 eta 1543/2011 Errege Dekretuak), eta akats edo hutsegiteren batengatik fitxategian zer kontratu mota den adierazten ez diren kasuak. Erregimen Orokorreko afiliatuak bakarrik hartzen ditu barne, eta kanpoan uzten ditu nekazaritzako eta etxeko langileen sistema bereziak.

Iturria: Gizarte Segurantza.

Amaierako saldoak erakusten duenez, Erregimen Orokorrean afiliatutako pertsona kopuruak 17.362 pertsonako hazkundera izan zuen, hau da, +% 2,3 hazi zen 2019ko ekainarekiko.

### 3.3- LANGABEZIA TASA ETA ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA


Eustaten Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren (BJA) arabera, 2022ko bigarren hiruhilekoan % 8,5ekoa zen langabezia-tasa EAEn, 2019ko bigarren hiruhilekoan baino bederatzi hamarren baxuagoa; 2009az geroztiko langabezia-tasarik baxuena da.

14. GRAFIKOA.  
EAE. LANGABEZIA-TASA (BJA)

Iturria: Eustat.

Gizonen langabezia-tasa % 8,2koa izan zen, eta emakumeena % 8,8koa. Bi kasuetan, 2019ko bigarren hiruhilekoko baino baxuagoa izan zen (% 9,1 eta % 10,7, hurrenez hurren).

Bestetik, 2022ko ekainean EAeko enplegu-bulegoetan 111.642 langabetu erregistratu ziren; hala, ia 2019ko maila berean kokatu ginen.

15. GRAFIKOA.  
EAE. ENPLEGU-BULEGOETAN ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA (HILEKO AZKEN EGUNA)

Iturria: SEPE.